

Are gehiago, etxe horretan zeuden neska batzuk hartu nituen nirekin, baita Aukera elkartearen bidez ezagututako batzuk ere; kaletik ateratzeko aukera ematen nien. Nik bi pisu izan ditut lanerako eta guztira hiru bat urte egon naiz.

Orain zertan zabilta?

Orain masaje lokala dut. Pisuak utzi ditut, lan asko da eta irabazi gutxi. Nik neskei ez nien apenas kobratzen. Nik lanerako nire lekua nuen eta laguntzearren egiten nuen. Orain ere, masaje lokalean hiru neska gehiago daude, baina sinbolikoa da haiek ematen didatena.

Nori zuzendua dago?

Orain beste bezero mota bati zuzendua nago. Beno, berdina delakoan nago ni, baina bezeroek, penetrazioa ez dagoenez, adarrak jartzen dituztenik ez dute uste. Amaiera zoriontsua duten masaje erotikoak edo felazioak egiten ditut. Bikoteekin ere egiten dut lan. Eta emakumeei ere masaje erotikoak egiten dizkiet. Ez dago gizonen eskari bera, baina bada-go. Ezgaitasunen bat dutenekin eta garun paralisia dutenekin ere egiten dut lan.

Nola hasi zinen ezgaitasunen bat dutenekin?

Orain hiru urte bezero baten bidez lortu nuen lehen lana. Telefonoz hitz egiteko modu berezia sumatu nion eta berak esan zidan gurpil aulkian zela. Zerbitzu horren ostean, ikasten jarri nintzen, formatzen... Egun zortzi bat ditut, pertsona zoragarriak denak! Hori bai, Down sindromea dutenekin ez naiz ausartzen, nirekin engantxatuko diren beldurra dut.

Batik bat ezgaitasunak dituztenekin lanean aritzea al duzu helburu?

Haiekin bai, baina ez bakarrik. Bikoteekin aritzea ere izugarri gus-tatzen zait. Ohikerian sartu eta fantasia galdu dutenekin.

Nola egiten da lan bikoteekin?

Lehengo beti emakumearekin hartzen dut kafetxo bat, normalean haiek daude-eta baldintza-tuen. Haren enpatia eskuratu be-

«Bakoitzak bere estigmekin hausten ez badu, nork hautsiko du?»

LAURA

SEXU LANGILEA

Ez du «puta» etiketarekin lotzerik nahi, horregatik ez du ez izena ezta aurpegia eman nahi. Haren testigantza, baina, gurekin partekatu du, eta guk oihartzuna eman nahi diogu.

oihana.llorente@gaur8.info

har dut, eta gero, elkarri masajea egiten irakatsi eta gauza berriak aurkitzen laguntzen diet, bikoteen arteko truke lekuak proposatzen dizkiet... Dena naturalagoa ikusten irakasten diet, zer du txarra sexualitateak? Jende askok galdetu bai, baina ez dute etortzeko pausua ematen!

Arriskuak ekidin behar dira?

Neurri batzuk hartu behar dira. Zure espazioan egotea da hobere-na. Gainera oso desberdina da egunez edo gauez lan egitea. Gaueko bezeroa arriskutsuagoa da. Nik klubetatik aparte ez dut inoiz gauez lan egin. Kolokatuta edo edanda etor daitezke, eta, edozein ezezkoen aurrean, auskalo nola jartzen diren! Niri ez zait inoiz ezer pasa, baina baditut lagunak gaizki pasa dutenak.

Jende gehienak lanbide hau aukeratu egiten du?

Eztabaida hori pil-pilean dago gure artean ere. Nik uste gehienek behintzat, aukeratu aukeratzen dutela, nahiz eta ez onartu. Behar-rak eraman ditu noski, baina, beste aukeren artean, hau hautatu dute.

Jendeak emakume salerosketa eta drogarekin lotzen du prosti-tuzioa.

Ez du zerikusirik. Ez du zertan, behintzat! Egia da gauez ari direnek erritmoa jarraitu behar dutela, baina bestelako lanetan ere gerta daiteke. Emakume salerosketa egongo da, baina baita neka-zaritzan eta ehungintzan ere!

Derrigortuta aritu denik ezagutu al duzu?

Kasu bakarra ezagutu dut. Brasilgo neska bat zen; familia mehatxatua zuen eta bezero on batek lagundu zuen. Albisteengatik dakit bestela. Hemen, hala ere, ez dut uste asko dagoenik.

Nola eramaten da estigma?

Batzuek hobeto besteek baino, baina gehienek ez dute sexu langileak direnik onartzen. Horiek dira okerren daramatenak. Oso tristea da hori. Onartu ezean, gainera, ez dute euren lana ondo egiten. Oso kritikoa naiz horrekin; urteak daramatzate lanean, ez du-

te lanbidea uzten, baina ez dituzte gauzak ondo egiten ere.

Zer da lana ondo egitea?

Ahalik eta denbora gutxienean ahalik eta diru gehien ateratzen saiatzen dira, eta hori ez dago ondo. Zuk zerbitzu bat eskaintzen baduzu, bete adostutakoa! Denborak, zerbitzuak... ez abusatu! Gero bezeroa bera da hau guztia estigmatizatzen duena. Batzuk gaizki aritzea denen kalterako da.

Zure familiak badaki?

Nik ez dut familia zuzenik, baina nire inguruak badaki.

Alabak ere?

Alabak oraindik ez, umea da. Badaki sexuarekin lan egiten dudala, baina esango diot. Esateko desiratzen nago! Bakoitzak bere estigmekin hausten ez badu, nork hautsiko du? Ez diot une horri beldurrik, harreman estua dugu eta edozer gauza galdetuko dit.

Krisia nabari da?

Bai nabari da, asko gainera. Baina lana beti dago.

Bizitzeko aukera eskaintzen dizu lanbide honek?

Diru nahikoa ateratzen da. Zaila da dirua kudeatzea, bihar eta etzi berdin joango zaizula uste duzu, baina agian garai txarra dator... Umea bakarrik heztea baimentzen didan lan bakarra da hau.

Egoera erregularizatuan egiten duzu lan?

Garai batean autonomo gisa alta eman nuen, baina epigrafea existitu ere ez da egiten! Bestelako aktibitateetan eman nuen izena. Baina baja eman dut, dirua botatzea da.

Abolizioa ala erregularizazioa?

Erregularizazioa, zalantzarik gabeko. Salerosketaren kontra nago, eta, lanbidea erregularizatua egongo balitz, desagertu egingo litzateke.

Nola ezagutu zenuen Aukera?

Ez dut gogoratzen ere, aspaldi izan zen eta nire ekarpentxoa egiten dut. Oso garrantzitsua da euren lana, eta euren ikuspegia guztiz beharrezkoa da.